



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Arte Eszenikoak Artes Escénicas

EAU 2023 USE

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

**Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.**

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**

**Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jarri behar duzula.**

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisia (4 puntu).**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisia:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
  - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
  - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (1 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).**

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Ikasturtean izan dituzun esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (adibidez, kritikariak aipaturakoak) (1 puntu).

**3. atala. Termino teknikoak buruzko galderak (3 puntu)**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

***Este examen tiene TRES partes. En cada parte debes contestar a una de las dos preguntas.***

***En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La duración del examen es de 90 minutos. Las dos opciones del examen constan de los tres mismos apartados.

**Apartado 1. Comentario y análisis de la obra teatral (4 puntos).**

El comentario y análisis se realizará en función de los aspectos siguientes:

- a) Análisis de las características estilísticas y argumentales de la obra.
  - Género teatral (0,5 puntos).
  - Argumento y conflicto principal que aborda la obra (0,5 puntos).
  - Opinión personal fundamentada en argumentos técnicos sobre la obra analizada (0,5 puntos).
  - Vigencia de tal argumento hoy en día (0,5 puntos).
- b) Situación y caracterización del contexto.
  - Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica, ideas artísticas del/la autor/a (1 punto).
  - Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada, corrientes escénico-artísticas de la época (1 punto).

En el comentario y análisis de la obra escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

**Apartado 2. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica escénica (3 puntos).**

El comentario de texto tendrá como máximo un folio y tratará sobre los siguientes aspectos:

- Identificación de las ideas principales y de las ideas secundarias del texto (1 punto).
- Señalar y explicar algunas palabras o términos técnicos estéticos o de interés que aparecen en el texto (1 punto).
- Basándote en tus propias experiencias desarrolladas durante el curso (y en aquellas obras escénicas vistas) describe cómo resolvisteis o cómo resolverías los diferentes aspectos implicados en la puesta en escena (por ejemplo, los destacados por el/la crítico/a) (1 punto).

**Apartado 3. Preguntas sobre Términos Técnicos (3 puntos).**

Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas. Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada una de ellas se calificará con 0,5 puntos.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2023ko EZOHAKOAK

**ARTE ESZENIKOAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2023

**ARTES ESCÉNICAS**

**1. ATALA – Iruzkina eta analisisia. Bietako bat aukeratu.**

**(4 puntu)**

- a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea*.
- b) Calderón de la Barca. *Bizitza ametsa da*.

**2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

**Bietako bat aukeratu.**

**(3 puntu)**

- a) Yasmina Reza. *Artea*.
- b) William Shakespeare. *Macbeth*.

**3. ATALA - Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman.**

**(3 puntu)**

- 1. Biomekanika.
- 2. Katarsia.
- 3. Absurdoaren antzerkia.
- 4. Tragedia grekoa.
- 5. Fartsa satirikoa.
- 6. Bertsolaritza.
- 7. Banbalinak.
- 8. Aho-oihala.
- 9. Figurantea.
- 10. Jantzi-diseinatzailea.
- 11. Il Dottore.
- 12. Inprobisazioa.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko EZOHAKOAK

**ARTE ESZENIKOAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2023

**ARTES ESCÉNICAS**

**APARTADO 1.- Comentario y análisis. Contesta a una de las dos opciones.**

**(4 puntos)**

- a) Federico García Lorca. *La casa de Bernarda Alba*.
- b) Calderón de la Barca. *La vida es sueño*.

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica teatral. Contesta a una de las dos opciones.**

**(3 puntos)**

- a) Yasmina Reza. *Arte*.
- b) William Shakespeare. *Macbeth*.

**APARTADO 3.- Definición de SEIS de estos doce términos técnicos.**

**(3 puntos)**

1. Biomecánica.
2. Catarsis.
3. Teatro del absurdo.
4. Tragedia griega.
5. Farsa satírica.
6. Bersolaritza.
7. Bambalinas.
8. Telón de boca.
9. Figurante.
10. Diseñador/a de vestuario.
11. El Doctor.
12. Improvisación.

**1. ATALA. Iruzkina eta azterketa.**

- a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea. III. ekitaldia*

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

*BERNARDAREN etxeko barne-patioaren lau horma zuri-urdinska. Gaua da. Dekoratuak simple-simplea izan behar du. Etxe barruko argiak ateak argitzen ditu, eta argitasun pixka bat ematen diote eszenari. Erdian, mahai bat kinke batekin, eta mahaian Bernarda ari da afaltzen bere alabekin. Ponciak egiten die zerbitzua. Prudencia aparte dago eserita.*

*(Oihala jasotzean, isiltasun handia dago, mahaiko platerak eta tresnek urratzen dutena...)*

[...]

BERNARDA- Jan dugu. *(Altxatu egiten dira.)*

ADELA- Atariraino joango naiz hankak luzatu eta freskura pixka bat hartzera.

*(Magdalena, paretaren kontra dagoen aulki txiki batean esertzen da, gorputza atzeraka botaz.)*

AMELIA- Hirekin joango naun ni ere.

MARTIRIO- Eta ni ere bai.

ADELA- *(Gorroto eutsigaitz batekin.)* Ez dinat ba galdu behar!

AMELIA- Gauak konpainia eskatzen din.

*(Kanpora atera dira. Bernarda eseri egin da, eta Angustias mahaia txukuntzen ari da.)*

BERNARDA- Lehen ere esan dinat hik ahizpa Martiriorekin hitz egitea nahi dudala.

Erretratoarekin izandakoa bromak bat izan zunan, eta ahaztu egin behar dun.

ANGUSTIAS- Ondo daki berorrek hark ez nauela maite.

BERNARDA- Bakoitzak jakiten din zer pentsatzen duen barrutik. Ni ez naun bihotzetan sartzen, baina familian fatxada ona eta harmonia nahi dizkinat. Ulertzen?

ANGUSTIAS- Bai.

BERNARDA- Orduan, bale!

MAGDALENA- *(Erdi lotan.)* Gainera, berehalaxe joan behar dun hemendik-eta! *(Lo hartzen du.)*

ANGUSTIAS- Ba, berandu iruditzen zait!

BERNARDA- Zer ordutan utzi zenioten bart hizketaldiari?

ANGUSTIAS- Hamabi eta erdietan.

BERNARDA- Eta zer dio Pepek?

ANGUSTIAS- Distrailua aurkitzen dut nik. Beste zerbaitetan pentsatzen ariko balitz bezala hitz egiten dit beti. Zer duen galdetzen badiot, «gizonok geure kezka izaten ditugu» erantzuten dit.

BERNARDA- Ez dion ezer galdetu behar. Eta ezkontzen haizenean, are gutxiago. Hark hitz egiten duenean hitz egin, eta hura begira jartzen zainanean hik ere begiratu hari. Horrela ez dun disgusturik izango.

ANGUSTIAS- Ama, nik uste dut gauza asko ezkututzen dizkidala.

BERNARDA- Ez hadi gauza horien bila has, ez iezaion ezer galde eta, nolana ere, ez hazala inoiz ere negarrez ikus.

ANGUSTIAS- Pozik egon behar nuke, eta ez nago.

**1. ATALA. Iruzkina eta azterketa.**

b) Calderón de la Barca. *Bizitza ametsa da.*



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2023ko EZOHAKOAK

**ARTE ESZENIKOAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2023

**ARTES ESCÉNICAS**

Erregeak amesten du  
errege dela, hain zuzen,  
eta bizi da agintzen;  
uneak txaloz janzten du  
eta haizean idazten du.  
Azkenik, heriotzean,  
amaia du errautsean;  
ba al da agindu nahi duenik  
iratzarriko delarik  
herioren ametsean?  
Amesten du aberatsak  
zaintzen dituen sosekin;  
pobrezia beltzarekin  
amesten du pobre latzak.  
Amesten du jaun maratzak,  
amesten du langileak,  
amesten du iraintzaileak;  
beraz, munduan barrena,  
orok amesten du dena,  
ulertu ez arren jendeak.  
Amestu dut nagoela  
lotua kate hauekin;  
amestu nuen behinik behin  
lausengu artean nintzela.  
Zer da bizitza? Ospela.  
Zer da bizitza? Desira,  
isla, eromen, distira;  
altxor oro da trakets,  
oro da bizitza amets  
eta ametsak amets dira.

## 2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

a) Yasmina Reza. *Artea*.

'Artea' zuritik batere ez. Aldo Ruiz, El teatrero, 2017.

<https://elteatrero.com/2017/07/27/critica-arte-miguel-del-arco/>



Argazkia: <https://elteatrero.com/2017/07/27/critica-arte-miguel-del-arco/>

Miguel del Arco ausartu da Yasmina Rezaren klasiko moderno hau zuzentzen. Nazioartean gehien antzeztu den haren testuetako bat da [...]. Bere azken lanetan, hala nola 'Refugio', 'Hamlet' edo 'La noche de las trébedas' en, muntaketa ikusgarriago eta sofistikuagoen alde egin zuen; hemen, berriz, lan horietatik urrunduta, Del Arcok eszenaratze xume bat eskaintzen digu, artificio askorik gabea. Hala, Rezaren testu bikainari ahalik eta etekin handiena ateratzen dio. Komedia bat da, barreak eta algarak eragiten dituen, baina badu atzealde handi bat gordea: ohartu behar dugu denok aldatzen garela urteen joanarekin eta munduarekin harremanak izateko dugun modua ere alda daitekeela. Eta horrek adiskidetasunari ere eragiten dio, betiko zela uste baguen ere. Oso lan dibertigarria bada ere, 'Artea' elkarrizketa lotsagabe eta garratzez beteta dago, eta guda dialektiko zorabiagarri, are distiratsukoak hirukote protagonistaren interpretazio bikainei esker. Miguel del Arcok bikain zuzentzen ditu, bere ohiko dotoretasunarekin.

Eszenara eramateko, Alessio Meloniren eszenografia distiratsuan oinarritzen da Miguel Del Arco. Oraingoan, xumetasuna hautatu du berak ere, eta harritu egiten gaitu: agertokia pixka bat okertuta dago besaulki-patiorantz, eta egitura bat du atzealdean, non irudi batzuk proiektatzen baitira. Eta badu azken sorpresa bat ere. Nabarmentzekoak dira, halaber, Pau Fullana-ren argien diseinu zehatza eta Arnau Vilàren musika-partitura zoragarria, istorioari eta Del Arcok diseinatutako eszenaratzeari ezin hobeto egokitzen zaiona.

AUTOREA: Yasmina Reza. ZUZENDARITZA: Miguel del Arco. AKTOREAK: Roberto Enríquez, Cristóbal Suárez eta Jorge Usón. ESZENOGRAFIA ETA JANTZITERIA: Alessio Meloni. ARGIZTAPENA: Pau Fullana. MUSIKA: Arnau Vilà.

## 2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

b) William Shakespeare. *Macbeth*.

'Macbeth ameslari bat'. Victor Iriarte Ruiz, *Aquí muere hasta el apuntador*, 2011.

<https://aquimuerehastaelpuntador.es/2011/08/critica-de-macbeth-de-shakespeare-por-ur-teatro-bajo-la-direccion-de-helena-pimenta/>



Argazkia: <http://www.teatoromea.es/noticia.aspx?fmid=44>

Oraingoan, Macbeth bat proposatzen digute, non beste genero batzuk gurutzatzen baitira edo, gutxienez, nabarmen agertzen baitira Dunsinaneko gazteluko hormatzarren barnean. Bertsio trinko honek, testuz eta aktorez itxuraz konprimatuta badago ere, teknologiaren erabilera narratiboki zein estetikoki adimentsuari esker, berreskuratu egiten du Eskoziako gortearen edo Macbethen gotorlekuari amaierako guduan egindako erasoaren ikusgarritasuna. Pantaila zeharrargi batek aurrealdea hondotik bereizten du. Haren gainean (baina baita atzetik ere, teknika holografikoren batekin), Shakespearearen obraren unibertsoa osatzen duten irudiak proiektatzen dira [...].

Pantailak, nolabait, fikzioa eta errealitatea bereizten ditu. Baina ez modu argian: pertsonaia batzuk alde batean hasten dira, eta gero bestean amaitzen; eta badira hesia zeharkatzen duten objektuak ere, hesia zerbait ebaneszentea balitz bezala, hala nola Duncan erregea hiltzeko erabiltzen diren sastakaiak. Horrek guztiak irrealitate-itxura ematen dio ekintzari, eta handiagotu egiten du Macbethek bere buruan duen nahastea. [...]

Helena Pimentak operaren handitasuna ere ekarri dio Macbeth honi. Madrileko Coro de Voces Graves abesbatzak Shakespearearen testuan oinarritutako Verdiren piezaren pasarte batzuk interpretatzen ditu, Iñaki Salvadorrek sortutako beste konposizio batzuekin batera. Emaiza oso interesgarria da. Eszenak grabitatez betetzen dira eta, gainera, abesbatzaren presentziak tragedia berehala datorrelako sentsazio zital bat ematen die. Une antologikoren bat ere badago; adibidez, Duncanen heriotzaren iragarpena: agertokia beterik dago, eta bat-batean husten da Malcolm infante babesgabea han bakarrik uzteko.

Ur Teatro, Erriberri. La Cava, 29/07/2011. AUTOREA: William Shakespeare. ZUZENDARITZA: Helena Pimenta. AKTOREAK: José Tomé, Pepa Pedroche, Óscar S. Zafra, Javier Hernández-Simón, Tito Asorey, Belén de Santiago, Anabel Maurín.

## APARTADO 1. Comentario y análisis

a) Federico García Lorca. *La casa de Bernarda Alba*. Acto III

*Cuatro paredes blancas ligeramente azuladas del patio interior de la casa de Bernarda. Es de noche. El decorado ha de ser de una perfecta simplicidad. Las puertas, iluminadas por la luz de los interiores, dan un tenue fulgor a la escena. En el centro, una mesa con un quinqué, donde están comiendo Bernarda y sus hijas. La Poncia las sirve. Prudencia está sentada aparte.*

*(Al levantarse el telón hay un gran silencio, interrumpido por el ruido de platos y cubiertos.)*  
[...]

BERNARDA: Ya hemos comido. *(Se levantan.)*

ADELA: Voy a llegarme hasta el portón para estirar las piernas y tomar un poco el fresco. *(Magdalena se sienta en una silla baja retrepada contra la pared.)*

AMELIA: Yo voy contigo.

MARTIRIO: Y yo.

ADELA: *(Con odio contenido.)* No me voy a perder.

AMELIA: La noche quiere compañía.

*(Salen. Bernarda se sienta y ANGUSTIAS está arreglando la mesa.)*

BERNARDA: Ya te he dicho que quiero que hables con tu hermana Martirio. Lo que pasó del retrato fue una broma y lo debes olvidar.

ANGUSTIAS: Usted sabe que ella no me quiere.

BERNARDA: Cada uno sabe lo que piensa por dentro. Yo no me meto en los corazones, pero quiero buena fachada y armonía familiar. ¿Lo entiendes?

ANGUSTIAS: Sí.

BERNARDA: Pues ya está.

MAGDALENA: *(Casi dormida.)* Además, ¡si te vas a ir antes de nada! *(Se duerme.)*

ANGUSTIAS: Tarde me parece.

BERNARDA: ¿A qué hora terminaste anoche de hablar?

ANGUSTIAS: A las doce y media.

BERNARDA: ¿Qué cuenta Pepe?

ANGUSTIAS: Yo lo encuentro distraído. Me habla siempre como pensando en otra cosa. Si le pregunto qué le pasa, me contesta: «Los hombres tenemos nuestras preocupaciones.»

BERNARDA: No le debes preguntar. Y cuando te cases, menos. Habla si él habla y míralo cuando te mire. Así no tendrás disgustos.

ANGUSTIAS: Yo creo, madre, que él me oculta muchas cosas.

BERNARDA: No procures descubrirlas, no le preguntes y, desde luego, que no te vea llorar jamás.

ANGUSTIAS: Debía estar contenta y no lo estoy.

## APARTADO 1. Comentario y análisis



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2023ko EZOHAKOAK

**ARTE ESZENIKOAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2023

**ARTES ESCÉNICAS**

a) Calderón de la Barca. *La vida es sueño*.

Sueña el rey que es rey, y vive  
con este engaño mandando,  
disponiendo y gobernando;  
y este aplauso, que recibe  
prestado, en el viento escribe,  
y en cenizas le convierte  
la muerte, ¡desdicha fuerte!  
¿Que hay quien intente reinar,  
viendo que ha de despertar  
en el sueño de la muerte?  
Sueña el rico en su riqueza,  
que más cuidados le ofrece;  
sueña el pobre que padece  
su miseria y su pobreza;  
sueña el que a medrar empieza,  
sueña el que afana y pretende,  
sueña el que agravia y ofende,  
y en el mundo, en conclusión,  
todos sueñan lo que son,  
aunque ninguno lo entiende.  
Yo sueño que estoy aquí  
destas prisiones cargado,  
y soñé que en otro estado  
más lisonjero me vi.  
¿Qué es la vida? Un frenesí.  
¿Qué es la vida? Una ilusión,  
una sombra, una ficción,  
y el mayor bien es pequeño:  
que toda la vida es sueño,  
y los sueños, sueños son.

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica escénica**

a) Yasmina Reza. *Arte*.

‘Arte’ de blanco, nada. Aldo Ruiz, El teatrero, 2017.

<https://elteatrero.com/2017/07/27/critica-arte-miguel-del-arco/>



Fotografía: <https://elteatrero.com/2017/07/27/critica-arte-miguel-del-arco/>

Miguel del Arco se atreve a dirigir este clásico moderno de Yasmina Reza, uno de los textos más representados a nivel internacional [...]. Alejándose de sus últimos trabajos como ‘Refugio’, ‘Hamlet’ o ‘La noche de las tribadas’ donde apostaba por montajes más espectaculares y sofisticados, Del Arco nos ofrece aquí una puesta en escena sencilla y sin muchos artificios, sacándole el máximo partido al espléndido texto de Reza, una comedia que provoca risas y carcajadas pero que también encierra un gran trasfondo; debemos percatarnos de que todos cambiamos con el paso de los años y de que también puede cambiar nuestra manera de relacionarnos con el mundo. Y esto atañe también a la amistad, por mucho que la creyéramos imperecedera. Aunque es una obra muy divertida, ‘Arte’ está repleta de diálogos descarnados y mordaces, y de vertiginosas batallas dialécticas que brillan aún más gracias a las soberbias interpretaciones del trío protagonista, dirigidos por Miguel del Arco de forma impecable y con su habitual elegancia.

Para su puesta en escena, Miguel Del Arco se apoya en la brillante escenografía de Alessio Meloni, que en esta ocasión se decanta también por la sencillez y nos sorprende con el escenario ligeramente inclinado hacia el patio de butacas y una estructura al fondo en la que se van proyectando algunas imágenes, y cuenta con sorpresa final incluida. Hay que destacar también el preciso diseño de luces de Pau Fullana y la maravillosa partitura musical de Arnau Vilá, que se ajusta como un guante a la historia y a la puesta en escena diseñada por Del Arco.

AUTORÍA: Yasmina Reza. DIRECCIÓN: Miguel del Arco. INTÉRPRETES: Roberto Enríquez, Cristóbal Suárez y Jorge Usón. ESCENOGRAFÍA Y VESTUARIO: Alessio Meloni. ILUMINACIÓN: Pau Fullana. MÚSICA: Arnau Vilá.

## APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica escénica

b) William Shakespeare. *Macbeth*.

'Un Macbeth visionario'. Victor Iriarte Ruiz, Aquí muere hasta el apuntador, 2011.

<https://aquimuerehastaelapuntador.es/2011/08/critica-de-macbeth-de-shakespeare-por-ur-teatro-bajo-la-direccion-de-helena-pimenta/>



Fotografía: <http://www.teatroromea.es/noticia.aspx?frmId=44>

En esta ocasión, nos proponen un Macbeth en el que otros géneros se cruzan o, por lo menos, asoman más de medio cuerpo hacia el interior de los muros del castillo de Dunsinane. Aparentemente comprimida en texto y actores, esta compacta versión recupera la debida espectacularidad de la corte escocesa o del asalto a la fortaleza de Macbeth en la batalla final gracias al uso inteligente, tanto desde el punto de vista narrativo como estético, de la tecnología. Una pantalla traslúcida separa el primer término del fondo. Sobre ella (pero también por detrás, con algún tipo de técnica holográfica) se proyectan las imágenes que completan el universo de la obra shakespeariana [...].

La pantalla separa de algún modo la ficción de la realidad. Aunque no de modo claro: hay personajes que comienzan de un lado para luego terminar en el otro; u objetos que atraviesan la barrera como si fuera algo evanescente, como los cuchillos con los que se apiola al rey Duncan. Todo esto da un aire de irrealidad a la acción, añadiendo más confusión a la que ya tiene Macbeth en su cabeza.[...]

Helena Pimenta incorpora también a este Macbeth la solemnidad de la ópera. El Coro de Voces Graves de Madrid se encarga de interpretar algunos pasajes de la pieza de Verdi basada en el texto de Shakespeare, junto con otras composiciones creadas por Iñaki Salvador. El resultado es muy sugerente. Las escenas se cargan de gravedad y la presencia del coro les añade, por si faltara, una ominosa sensación de tragedia inminente. Hay algún momento antológico, como el anuncio de la muerte de Duncan, con un escenario lleno que se desaloja repentinamente para dejar solo en él al desvalido infante Malcolm.

Ur Teatro, Olite. Escenario de La Cava, 29/07/2011. AUTOR: William Shakespeare. DIRECCIÓN: Helena Pimenta. INTÉRPRETES: José Tomé, Pepa Pedroche, Óscar S. Zafra, Javier Hernández-Simón, Tito Asorey, Belén de Santiago, Anabel Maurín.